

LH 4, 5 eta 6

AURRE EZAGUTZA AKTIBATU!

**Bisitan etorri aurretik ikastetxean ondokoa egitea gomendatzen dugu.
Irakaslearentzako gidioia.**

Euskararen Etxera etorri aurretik gomendagarria da gaia ikastetxean jorratzea. Hala, metodo erraz eta azkar baten bidez, irakasleak ikasgelan erabil dezakeen materiala prestatu dugu. *Genial.ly* plataformaren bidez, Euskararen Interpretazio Zentroko edukiei lotutako galdetegi-jolasa duzue.

Galdera bakoitzarekin batera, azalpen txiki bat dago audio formatuan, bai erantzun aurretik, bai erantzun eta gero. Beraz, sistema erraza eta dinamikoa da.

- **IRAUPENA:** 45 minutu
- **ESTEKA:** <https://view.genial.ly/63f881c6b98715001106cdf9>
- **IRAKASLEARENTZAKO AZALPENAK:**

Ariketa egiteko hainbat aukera daude:

1. aukera: ariketa ikasgelan egiten bada eta ikasle guztiek ordenagailua badute, erreferentziako ordenagailu bakarra erabili beharko da, jolasak azalpen-audioak baititu. Irakaslearen ordenagailua/proiektorea izango da erreferentzia eta gidari, eta ikasleek beren ordenagailuen bidez erantzun ahal izango dute, baina azalpen-audioetan klik egin gabe.

2. aukera: ariketa ikasgelan egiten bada eta ikasleek ordenagailurik ez badute, paperezko fitxak erabili. Irakaslearen ordenagailua erabili erreferentzia eta gidari gisa, eta ikasleek paperean erantzun dezatela.

3. aukera: etxeko lan gisa erabiltzea. Ikasleek beren etxean egiteko jarraibideak jarraituz.

Ariketa ikasgelan egiten bada, irakasleak ikasleei ariketaren erronka azalduko die. Ordenagailua erabili edo galdetegiaren fitxa inprimatu.

Jolasaren esteka:

Argibideak jarraitu.

- **BEHARRAK:** Ordenagailua, bozgorailuak, eta proiektorea.